

# TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN:

## TOLOSERRIA (Tolosaldea)

### 2016/06/27

**Kokalekua:** Topagunea, Kultur-Etxea (Tolosa)

**Iraupena:** 2 ordu eta 45 minutu

### Parte hartzaileak

Izena	Udalerria	Elkarte/Erakunde/... /
Patxi Amantegi	Tolosa	Alkate ordea
Joseba Bergaretxe	Berastegi	Ekai Center
Mikel Telleria	Baliarrain	Udaletxea
Miren Balerdi	Altzo	Zinegotzia
Angel Uranga	Tolosa	Teknikaria
Ana Leunda	Irura	Alkatea
Mikel Arrizabalaga	Irura	Idazkaria
Pilar Legarra	Asteasu	Asteasuko Udala
Maite Amenabar	Zizurkil	Zizurkilgo Udala
Aitor Sarasua	Zizurkil	Zizurkilgo Udala
Jon Umerez	Alkiza	Alkizako Udala
Eneko Maioz	Orexa	Orexako udala
Haritz Iparragirre	Lasarte-Oria	

Izena	Udalerria	Elkarte/Erakunde/... /
Jon Zubizarreta	Abaltzizketa	Udala

## Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Izaskun Iriarte Irureta	Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea
José Ramón Varela Balenciaga	Gipuzkoako Lurralde Antolakuntzako Arduraduna

## Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Jon Agirre Such	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru
Ainhoa Lopez Eiguren	Inguru

## Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Izaskun Iriarte Iruretak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariak eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitartezko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-partte hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailerrera proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

## LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Jonek.

## Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Jonek, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
  - o Paisaia
  - o Ingurune fisikoaren antolamendua
  - o Klima aldaketa
  - o Babestutako Naturguneak
  - o Korredore ekologikoak
  - o Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
  - o Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
  - o Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
  - o Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
  - o Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
  - o Hiriz hazkundera
  - o Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
  - o Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
  - o Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
  - o Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
  - o Bide-mugikortasuna
  - o Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
  - o Talde mugikortasun multimodala

- Eredu logistikoa
- Ura
- Energia
- Zeharkako alderdiak
  - Genero ikuspegia, osasuna, euskara
  - Lurraldeen arteko harremana
  - Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Anak:

- Talde-lana (75 minutu): Parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Landutako ideiak post it-etan idatzi beharko dira (post it bat, ideia bat). Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratu du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

### Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

#### 1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

##### 1.1. Paisaia

- 1.1.1..Paisaiaren kudeaketa jende gutxiren artean egiten da (populazioaren %10-20). Hori errekonozitu egin behar zaie eta balioan jarri behar da.

##### 1.2. Babestutako naturguneak

- 1.2.1.Natura 2000 sarea bezalako babes guneak marrazten dira, baina gero ez da hauen kudeaketa egokia egiten. Erabilerak mugatzen dira, baina ez dira politika aktiboak edo hobekuntza jarduerak planteatzen eta gauzatzen.
- 1.2.2.Eremu hauen ultrababesak, erabilera mugen ondorioz, bertan behera lagatzea dakar.

### 1.3. Ingurune fisikoaren antolamendua

1.3.1. Lurzoru urbanizaezinaren tratamendua (baimendutako erabilerak, eraikinen banaketan....) ez litzateke herri guztientzako berdina izan behar, ez litzateke arau orokor baten bitartez erregulatu beharko. Errealitate ezberdinak daude, udalerrri kasuistika zabala dago (landa lur asko dituzten udalerrri txiki-txikiak, udalerrri ertainak eta hiriak). Araua beste era batera planteatu behar da.

1.3.2. Landa eremua ez da hainbeste babestu edo arautu behar. Landa eremuari lotutako jarduera ekonomikoak babestu behar dira edo garatzeko aukera eman eta ez dena debekatu, landa bizi direnei bertan bizitzeko aukera emateko.

1.3.3. Herri bideen katalogazioa

1.3.4. Natur eremuetako mugako eremuetan sartzeko bideak mantentzeko beharra.

## 2. Landa-ingurunea

### 2.1. Landa-inguruneko garapen ekonomikoa

2.1.1. Lehendik dauden baserrietan bizitzen jarraitu ahal izateko erraztasunak izatea. Ingurua kaltetu gabe baserri bideak eta ingurua zainduz.

2.1.2. Lurzoru urbanizaezinean etxebizitzak banatzeko aukera ahalbidetu. 2, 3, 4... etxebizitza eraikin bakoitzean. Gaur egungo legediarekin arriskua dago baserriak husteko, bertan bizitzeko garestiegiak, handiegiak... baitira.

2.1.3. Landa eremuko jarduera ekonomikoa mantendu behar da eta erraztasunak eman behar dira.

2.1.4. Baserritarrei garapen ekonomikorako, elikadura burujabetzarantz, aukerak eman behar zaizkie.

2.1.5. Landa eremua balioan jarri behar da turismoa erakartzeko. Turismoa gaur egungo jarduera ekonomikoekin uztartu behar da.

2.1.6. Landa garapenerako Tolomendik atera duen txostena aintzat hartu

2.1.7. Baratza bat mantentzea erreza izan daiteke baserrian bizi direnentzat (autokontsumora bideratuta bereziki), baina ez da gauza bera gertatzen zelaiekin edo sail handiekin esaterako, gaur egun zailtasunak dituzte etekinak ateratzeko.

### 2.2. Landa-inguruneko antolamendu fisikoa

2.2.1. Nekazaritza eta basozaintzako LPSan nekazaritzarako lurrak "marrazten" dira eta erabilerak mugatzen dira, baina gero politika aktiboak ez dira martxan jartzen. Gainera, marraztutakoak ez dio estrategia bati erantzuten eta udalerrriekin ez da kontatu lur hauek izendatzeko, nahiz eta politika hauek garatu eta martxan jartzeko gertuko tresna izan. Horrez gain, LPSan datorrena ez da errespetatzen HAPOak idatzi eta garatzeko orduan, salbuespena arau orokor bihurtzen baita eta arau orokorra salbuespen. Hau ekiditeko LAGek marko orokor bat definitu beharko lukete.

2.2.2. LPSa behar bada beste mota/eskala bateko tresna izan beharko litzateke. Ezin da legedi orokor bat egin, errealitate ezberdinak izan behar dira kontutan, ez baita berdina Araba edo Gipuzkoa (aran estu-estu osatua).

### 3. Hirigunea.

#### 3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza

3.1.1. Herriguneen dentsitatea handitu behar da, etxebizitzak kontzentratuz

3.1.2. Hazkundearen abiadura herri beharretara egokitu. Herri txikietan hazkunde azkarrek ume pikoak sortzen dituzte adibidez eta ondorioz azpiegitura eta zerbitzuak (ikastexeak...) piko hauetara egokitu bera dituzte.

3.1.3. Birgaitzea ezin da mugatu 60-70 hamarkadetako auzoetara. Alde zaharrak utzita daude eta ez dago politika publikorik eremu horiek birgaitzeko. Alde zaharretan, guneko historikoetan batez ere, babes legeak ezartzen dira, baina gero ez dira birgaitzeko laguntza eta politika aktiboak garatzen.

#### 3.2. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea

3.2.1. Industriaguneak herri inguruan izateak onurak suposatzen ditu, baina baita ere beharrak (azpiegiturak, zerbitzuak...). Horregatik, interesgarri izan daiteke eskualde ikuspuntutik garatzea.

3.2.2. Industriaguneak herrietan kokatu, nahiz eta desoreka ekarri

#### 3.3. Hiri hazkundera / Egoitza kuantifikazioa

3.3.1. Lurzoru urbanoari mugak jarri behar zaizkio

3.3.2. Etxebizitza beharren kuantifikazio minimoak ezin dira jarri. Herri txikietan arazoak sortzen dituzte, beharrik gabeko hazkundera sortzen dituzte eta ondorioz hazkunde horri erantzuteko azpiegitura eta zerbitzuak egin behar dira.

#### 3.4. Mugako herriak

3.4.1. Hirigintzako plangintzak koordinatuta egin behar dira.

3.4.2. Azpiegiturak ez dira bikoiztu behar (udal eta bestekoak)

### 4. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak

#### 4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

4.1.1. Bide gorri gehiago egin hiri konexiorako (autoa ez erabiltzeko) eta ez kirola egiteko

4.1.2. Eskualdeko bidegorri sarea bukatu

4.1.3. Bidegorria egin Añorga, Irura eta Villabona artean

#### 4.2. Bide-mugikortasuna

4.2.1. Oinarrizko dokumentuan dauden helburuak ondo daude, baina soilik helburuen espezioa da. Hau ez litzateke horrela izan beharko, helburu hauek lortzeko zehazpen eta neurri zehatzak falta dira, salbuespen tranparik gabeko neurriak. Adibidez:

- Tren sare egokiak, tokiko sareak, bultzatu: maiztasuna, geltokiak...

- Distantziak zehaztu (karbono gutxiko politiken aldeko apustu erreala): non egon behar duten industria, aisia, kontsumo... guneek
- Erabileren nahastura sustatu

4.2.2. Kotxeentzat pentsatutako errepideak ditugu gaur egun. Kotxeen protagonismo murriztu behar da. Bazterbideak gaizki eginda daude, hobetu egin behar dira oinezkoen mugikortasuna errazteko.

#### 4.3. Ura

4.3.1. Uraren zenbait aspektu estatuko (konfederazio hidrografikoa) konpetentzia denez, arazoak sortzen dira erabakiak hartu eta plangintzak gauzatzeko orduan. Ibaien eta erreken ertzak antolatzen LPSan planteamendu batzuk daude, baina edozein plangintza onartzeko edo lizentziak tramitatzen konfederaziora joan behar da. Horrez gain Lurralde Antolamenduko Batzordean URA dago eta ez Konfederazioa, beraz, hartzen diren erabakien ez dute balio.

4.3.2. Ur zikinaren arazketa sistemak herri guztietan ezarri behar dira, tokian tokiko soluzioekin.

#### 4.4. Energia

4.4.1. Instalazio txikien bitartez, gure energia sortzeko gure baliabideak erabili (egurra, ura, haizea...), tokian tokikoak.

### 5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte hartzea

#### 5.1. Genero ikuspegia, Osasuna, Euskara

5.1.1. Hirigintza eredu jakin batek hizkuntza ohiturak aldatu eta herria eralduntzen du. Euskara irizpide gisa kontutan izan beharko litzateke, hirigintza planak definitzeko orduan.

5.1.2. Hirigintzak euskararen duen eragina neurtzeko ELE tresna dagoen bezala, beste tresna batzuk ere sortu beharko lirateke genero ikuspegia lantzeko edo hirigintzak beste zehar lerroetan duten eragina zehazteko. Baina tresna izatearekin ez da nahikoa, beharrezkoa da neurri zehatzak ezartzea, arautzea eta horretarako legeak sortzea, esperimentazio fasetik lotesle izatera pasatzeko.

#### 5.2. Parte hartzea eta Gobernantza

5.2.1. Babes guneen kudeaketa eta arauak parte hartzearen bidez idaztea

5.2.2. Parte hartzea indartsua izan beharko litzateke lurralde antolakuntzako plangintzetan.

5.2.3. Udalerrietan plangintzak egiteko orduan sortzen diren arazoak kontutan hartu beharko lirateke lurralde antolakuntzako plangintza guztiak egiteko orduan.

5.2.4. LPP eta LPSak plangintza estrategikoak izan behar dute, ez hiriko plangintzen puzzleak (udalherri guztietako plangintzak hartu eta hauen batura). Eskualdeko estrategia bat egin beharko litzateke eta LPPek hau definitu beharko lukete, gero herriko plangintzak bertara bideratzeko. Tresna hauek parte hartze bidez landu behar dira, parte hartzea bermatuko duten prozesu zabalekin.

- 5.2.5.LPSak oso urruti geratzen dira, EAEko eskala oso handia da. Udalerrietako plangintzak egiterakoan orduan LPSak, LAGak eta beste mailetako plangintzak landu beharko lirateke, herritarren parte hartzea hurbilagoa baita, nahiz eta tresna hauek berrikusteko garaia ez izan, behar denerako jasota geratuz.
- 5.2.6.Lurralde antolakuntzako plangintzak egiterako orduan, aurretik sortu diren arazoak kontutan hartu behar dira.
- 5.2.7.Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinen arteko koordinazioa, zeharkako lerroak aplikatzeko.
- 5.2.8.Departmentuen arteko elkarlana sustatzea, administrazio maila guztietan.